

# EUSKALTZAINDIA'REN

## SEIGAREN URTEKO BATZARAK

---

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian,  
1924 'ko Oñila 'ren 27 'an.

Batzar ontara euskaltzain abek datoz : Azkue mai-puru, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza ta Lakonbe. Urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzañaldi au.

1. Aita Intza'k esaten du : Iruña'ko euskal-apaiz-gayak udarako opor-egunetan euskeraren alde lan egin nai dutela ta ontarako Aita Intza'k berak gai batzuek eman dizkie: Napañoa'ko toki-izenak leño-leñoa jari; eñi aben inguru diran loreen ta landareen izenak ta ume-jolasketak. Euskaltzaindiak onetsi du.

2. Eguskitza jaunak *Lelo*-ren abesti edo eresia ederki aztertu-ta dakar, bere iritxiaz, apaldi bakoitzak zer esan nai duen edo itzen ikurpenak egoki erakutsirik. Gogoz entzun dute euskaltzainiak Eguskitza'ren lan au ta tartekako oar batzuek ipiñi dizkio lan oñeri Urkijo jaunak.

3. Azkue jaunak bere *Morfología irakuñi* du.

4. Irakurpenaren txolarte batean, Urkijo jaunak dio, iztegian ez dauden itz zaar edo beñiak edo egoki deritzazkigun idazle-itzak leñoz ekañi-ta, Euskaltzain-

diak aztertu bear litukela, onesten diranak lenbailen iztegian ezafi ditezen. Onetsi du Euskaltzaindiak.

5. Ganera, Iruña'ko apaiz-gaien udara-lanetarako *fichero* bat gertu bear zaiela esan da, oréla beren lana askoz érezago egin dezaten.

- Ta beste gai batzuek bigaramonerako laga-ta amaitu da batzaraldi au.

---

### Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1924'ko Orila' ren 28'an.

Auréko batzafean aipatzen diran euskaltzain berak datoz, Azkue maipuru dala.

1. Odon Apraiz jaunaren idazki luze ta mamitsu bat irakuri da ta Euskaltzaindiak gogo aundiz entzun du.

Apraiz jaun beroni Bidaso-aruzko *Erizkizundi* lana emango zaio, baldin berak ontzat artuko baligu.

2. Erabaki da: Gure *Euskera*'ren *suplemento* edo oriordeko bat argitaratzea, gayak gañezka datoze-lako.

3. Iruña'ko Seminarioko Eretore jaunak idaki batez Euskaltzaindiari esaten dio: euskaltzain bat edo bi ara bialtzeko, bertan izango diran euskalazterketa-rako. Ordeko izendatu ditu Euskaltzaindiak: aita Intza euskaltzainia ta Irigarai urgazlea.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzaraldia.

---